

+ Anaitasuna

V URTEA - N.º 55

Suplemento a la Hoja
ANAITASUNA de Guipúzcoa

Abendua (12) 1958

Euskaltzaleen Batzarrak Bilbon

Euskaltzaleen batzar ospetsu batzuk egin dira Bilbon. Diputaziñoko liburutegian, Abenduaren 13 eta 14-an. Euskerearen alde lan egin gurarik dabizen jaun eta andra asko batu zirean. leku danetatik etorrira: Frantziako Euskalerritik Madame Jauregiberri, Zuberoakoa; Naparroatik Age-re jauna, Iruñean (Pamplona) euskeraz erakusten dabena; Plazido Muxika, jesuita, euskerazko Dizionario galanta egiten dabillena (au Aragoike Veruela-tik etorri zan). Gipuzkoatik be morda ederra agertu zirean: Alvarez Emparanza, Lui Mitxelena, San Martin, Yon Etxaide, Zumalabe, Jausoro, Zugazti eta Nemesio Etxaniz abadeak, ta beste asko. Bilbo eta Bizkai aldetik be bardin: Gorostiaga, Oleaga, Irigoien, Aresti, Erkiaga, Arrutza, Garro, Seijo. Ordena askotako frailleak be ba-zirean: Pasionisten artean Aita Marzel, Karmelitetatik Aita Onaindia eta Aita Goiria, Jesuiten artean Aita Endeiza eta Aita Kortabitarte, Frantziskotarretatik be asko (Aita Agirretxe, Iturria, Sorarrain ta abar), Eskola Kristiñauetako Anai Olabeaga (au Irungo puntatik etorrira), Aita Mokoroa Eskolapioa...

Eta batzarraldietako zuzendari eta buru legez, Severo Alube jauna egoan ipiñita, danok maisu beneragarritzat daukogun jaun jakitun-jakituna. Orain Gernikako Taberna Vasea-n bizi da berau. Jaun onek bere liburuekaz lanik ederrena egin dau euskeraz zelan eskribidu bear dan erakusten. Eta liburu orreitan diñona da erriaren bidetik joan bear gareala, erriaren berbetea erabili, erriaren berbak ez baztertu eta barrikeri gitxi sartu euskerazko lanetan.

Euskeraz zer moduz idatzi bear dan: auxe zan ba Batzar areetako ikaskizunen gaia. Beraz, estudioko sesiñoak izan zirean, eta berbaldi ederrak eta gauza guztiz jakingarriak entzun genduzan.

Aita Zabala jesuita gazteak be berbaldi zozagarri bat egiu euskun bertsolarien gañean. Aspal-ditik dabil Aita au bertsolarien lanak batuten, gero liburuetan agertuteko. Etxerik etxe ibilli da toki askotan, ia kanta-paperik ete daukien itanduten, eta andik eta emendik pillo galanta osotu dau. Danok dakigu 1914-tik 1919-ra zelan izan zan Europako gerra aundia, "guerra europea" deritzona. Heta areetako euskal bertsolariak bar

tso asko atara eben, gerrearen ta odol-isurtzearen negargarria adierazoteko. Aita Zabalak, bada, bere berbaldian, gai orixe erabili eban: gerra europea ori zelan ikusi ta kantau eben orduko bertsolariak, zer burutaziño ta sentimentuak adierazoten dabean euren bertsoetan erakustea. Txirrita, Lezo, Enbeita ta beste askoren estrofak entzun genduzan. magnetofonari eskerrak. Gure erriko literaturearen erakusbide edo muestra eder bat izan zan.

Jauregiberri andreak be Zuberoako euskeraz berba egin eban. txoko aretako barri emonaz. Eta azkenik, Batzarrak amaitutakoan, Hilario Bilbao jaunak, Bizkaiko Diputaziñoaren izenean, eskerrak emon eutsiezan euskerearen alde lan egiten diñarduak guztieri. Bizkaiko soñuak eta kantak. Bizkaiko berbetea, Bizkaiko jazoera zarrak eta euskaldun erriaren berezitasun guztiak batu bear zireala, batu eta goratu: auxe izan zan Hilario Bilbao jaunak esan euskuna.

Geuk be eskerrak emoten deutsalaguz biotz-biotzetik Alfonso Irigoien bilbotar bizkorrari, Batzar zoragarriok atondu zitualako.

Gogoz entzun eta jaso genduzan Batzar areetako esanak, autuak eta jardunak. Euskeraz idazten dabenen artean be danak ez dabiz beti bide bardiñetik: batzuk garbizaleago dira beste batzuk erri-zaleago. Eta guk au ikasi dogu: "Anaitasuna" orritxuak erriko bidetik ibilli bear dabela, erritik urrean. Gure erriarentzat egiten dogu orri ori, eta ak aituteko moduan esan bear ditugu esaten ditugunak. Eta beste au be bai: ardura geiago emon bear yakola barruko mamiñari, ganeko azalari baiño. Kristiñautasuna sendotu gura dau Anaitasunak: auxe da bere lenengo zeregiña; baiña bide batez, euskaltasuna gorde be bai. Eta gauza bi orreek obetoen lortuteko, Axular aundiaren urregorritzko berbak artu gura ditu ispi-llutzat. Axular, euskaldun eskribatzaillerik aundi-ak, orain dala irureun urte bizi zanak, auxe diñotso irakurleari: Euskerea, ganeko azala berterrik ezta; eta ganeko azala ta lorea itzirrik, zoaz barruko mamiña.

Eta euskerari berari mesede egiteko be, auxe uste dogu dala biderik onena.

GABONAK!



Gabonak, Eguberri.k!!! A zer gogorapen ederrak bururatzan deukuezan egun zoragarri onek... Txiki-txikitandik doguz gure-gureak eguarri-egunak.

Zenbat aldiz bururatu ez doguzan gure txikiak ta gazte giñaneko zorioneko egun arek... Biotz-ezpanetan abesti goxoak, polit baiño politagoko «jaiot.ak» alde batetik eta bestetik... Eta mutil koskorrak zoratu bearrcan, kalerik kale, etxerik etxe, pozez eta kantari: «Ogeita laugarrena dogu Abenduan»...

Nork ez gogoratu Jesus Umetxoari mun egitera joaten giñaneko ordu goxo a.k; eta erbestean anai edo etxekoen bat genduala ta etorriko zala koan aitari: «Ator, ator, mutil etxera, gaztaña zimelak jatera», kantu eder au entzuten geuntzan ordu zoragarria, oba ez gogoratu! eta zenbat onak. Gure gaurko gogorapenak negar-ma koz bustita yatorkuz, benetan zoragarriak dirala, gero, gure Gabonak! Izan be, zer ez dabe Gabonak auskaldun kristiñauarentzat?

Eta irakurle, aurten be eldu yakuz Gabonak... Bear bada elurra mara-mara ari da gure mendi tontorrek zuritzen, errekaldeak izoztuak... eta etxe barruan izango dozuz gorputzarentzat gozogarri ta berogarri asko egun onetan: turroia, bexigu erreak, intxaur-saltza, orio-aza, jokoak... Nik bai al dakit zer...? Zer da'a-ta Gabonetan orrenbeste jai?

Ederto egiten dozu irakurle: Gure Aita San Prantzi.k.k be, beste ainbeste egiten

eban. Gabonetan ez eban prailleen artean aurpegi illunik ikusi gura; eta ganadueri be egun auetan janari geiago emoteko agintzen eban, onek be egun onetan poztu eitezan. Ori egiten bai eben santuak... zergaitik ez guk...?

Baiña, irakurle, zu kristiñau zaran lez ez gorputzari bakarrik, zure barruan daroazun anima orreri be emon bear deutzazu egun onetan berak eskatzen deutzuzan gozogarri ta berogarriak... jaten emon bear deutzazu animeari be... Zelan?


Alai'asuna, poza, anaitasuna, maitasuna! Izango dozuz egun auetan zer autatu zure arimea Jaungoikoaganako mai'asun sutsuan berotu, poztu ta alaitzeko. Zoaz Eleizara, zoaz; ez gelditu Jesus'eri bere seaskatxoan bisitatxo bat egin barik. Ortxe da'kozu Jesus, Belengo estalpetxo barrian, zuri begira... apal, umil, beartsu, zuk zer eskeñiko, zuk zer esango begira... Zuri ostatu eske... Edei egiozu zure biotza, leku egiozu eta arrera on bat egiozu. Orduan bai jaioko dala Jesus zure biotz-barrenean!

A ze bakea sentiduko dozun orduantxe zure barrenean, zure biotz garbian! Orduntxe bai izango zarcala baketsu, zoriontsu... Jesus Aurtxoak dakarren BAKE ta ONA zukan izango dozu-ta. Eta zu pozik... Jesus pozik... eta aingerutxoak pozik... bordaz-borda kantari:

«Aintza Jainkoari..., Bakea gizonari...!»

Alantxe izan bedi.

Kepa



ANAITASUNA'K

Bake ta zorion ta maitasuna ta anaitasuna

opa deusec euskaldun esharatz guztieri

GABON JAIALDIETAN

Ta zorionez betetako 1959'ko URTEA



Zemendia... Eriotza

Mendien gaiñetik, zeru garbi-urdiñak iges egin euskun. Eta basoak, euskaldun baso berdeak bakartzen billoizten... orriak jausten... lurtean zear joanean joanean doian aize-burrundarak daroiazan orbelen otsa... Izadia iltzen iltzen, ugari otoilari...

Zemendia... illaren lenengotik, lenengo egunean bertan, il kanpaiak, jantzi baltzak Eleizetan, kanposanturantz jentea ugari otoilari...

Zemendia... Eriotza... Gauza guztien eriotza... Gizonaren eriotza.

Eriotza...

—Ez esan orren izenik be! Gizonak alan diño beti, gizonak eta emakumeak, zarrak eta gazteak, umeak be bai, gai-xoak berak be bai.

Zer da, ba, eriotza?

Eriotza, gauza baltza... miketza...

—Ez esan orren izenik be! Ikara sortzen deust...

Zer ete da eriotza?

Eriotza zeruko atearen giltza.

Ez gara lurrerako egiñak... Zorionean gaiñera... Beti lur onetan bizi bear bagendu, zer gauza garratza gure bizi-tza.

Eskerrik asko Zeruetako Aita Jaungoiko Alguztiduna, Zeruetarako egin gin-



duzuzalako. Zugaz biaz beti zoriontsu izateko egin ginduzuzalako. Bedeinkatua izan bedi Aita Jaungoikoa eriotza emon euskulako.

Eriotza gauza baltza. Eriotza Zeruko atearen giltza.

Zer ete da egia?

Eriotza gizon txarrentzat, pekatari-entzat gauza baltza, oso miketza, inper-nuko atearen giltza.

Eriotza gizon onarentzat Zeruko atear-aren giltza, belikotasun atsegin baten asie-ara besterik ez.

Eriotza, zer da neretzat? Gauza bal-tza?... Zeruko atearen giltza?...

Bidani

Garbitasuna

—Ama, onek al dira atzo batutako lo-ratxoak?

—Bai, alabatxo, onexek.

—Eta zelan daiteke ori: Atzo ain eder eta apaiñak eta gaur ain zimel eta le-gortuak?

—Bai, ba, umetxo, larrosari arbolak emoten dautse bizitza, arbolak euren apaintasuna eta arbolatik ebai ezkero...

—Orduan, amatxo, larrosa loratxo onek euren arbolara eroan.

—Baiña, alabatxo, arbolatik bein ebai ezker ezin barriz inkau eta bizi artu, garbitasuna bein galdu ezkero barriz eskuratzen ez dan lez.

Gaurko eta betiko gaztedi askok zen-bat negar ez ete dabe egin beren garbi-

tasun txukuna galdu dabela konturatu diranean. Geienean uskeri bategaitik: be-girune loi bat, mosu bercegi bat, olgeta bat...

Besteengan damutu gaitzean eta gal-du baiño len kontuak atara.

Bere garbitasuna galdu dauan gazte batek diñotsu. Gaur negar ugari egiten dot baiña, egiña eginda dago. Orain damuak, orain negarrak, baiña alperrik.

Orregaitik diñotsut, garaiz konturatu, gero alperrik damulu ez zaitez.

Zenbat eta garbiago zeu, ainbat eta ederrago, pozago, alaiago irudituko ya-tsu bizitza. Ta alantxe izan be.

Gazte bat

Eriotzaren billurrik barik...

—Bat, bi, iru...

—Bost geiago. Guk irabazi dogu.

—Suerte txarra izan dogu guk. Bestean, urrengoan ikusiko dogu nor dan geiago.

Eguneko lan gogor baten ondoren atsedean bat artu dabe lau apaizek. An dabiz gogoz danak. Bat batean preguntu bat sortu da ago batetik: emengo batek eriotz ordua eldu yakola jakingo baleu, zer egingo leuke?

—Ni, diño batek, konfesatzera joango nintzake.

—Nik «Jesukristo neure Jaun» bero-bero bat esan barik ez neuke bakerik izango, esan eban beste batek.

—Nik il arte otoitzean igaroko neukez miñutu guztiak.

—Eta zuk, Karlos, zer egingo zeunke?

—Ezer gertatuko ez balitxat lez jokia irabazteko alegin guztiak egingo neukez

Olan berba egin ebana Karlos Borromeo zan. 1538'garrengo Urriaren bian jaioa. Gazte gaztetatik abadetzarako bokaziñoa izan eta baita bokaziñoari ja-

rraituz abade egin be. Abade egin da gero asmo on bi artu ebazan: Ama Birjiña Amatzat artzea eta lagun urkoaren alde bere aldetik alegin guztiak egilea.

23 urte eukazala, Aita Santuak, bere santutasun aundia ikusirik, Eleiza Ana Santako Kardenala egin eban. Izen edo titulo onegaitik ez ebazan arimen ardurak aztu. Beste amaika apaiz lez, Doktriña erakusten eta animen kristautasuna sendotzen gogoz ibiltzen zan. Baiña ez ebazan bera arimaren egin bearrak alde batera itxiten. Beti prest egoan Jaungoikoaren aurrean agertzeko. Eriotzak ez eutson bildurrik emoten, pekatu kutsurik be ez eukolako.

Zuk, irakurle, joko-bizian edo edozein zereginetan zagozala eriotz ordua yartortsula jakiñik, nasai-nasai Karlos legez esango zenduke: «ezer gertatuko ez balitz lez jokia irabazteko alegin guztiak egingo neukez?».

Uzturre

Gaurko gauzatxoak

Neskatillak bide txarretik doiaz.—Edozein mutil gaztegana joaten diralako. Diru apur bat badau edo langillea bada berakin goxo egiten dabe.

—Eta ori txarto al dago?

—Txarto ezlakit, baiña arrisku ederra bai mutillak eleiza gitxi dauka-ta.

—Prailleengana joan bearko orduan?

—Ori be ez. Mutil gazte on bategana.

—Baiña ni neska ona naiz, eta zeruratuko naiz.

—Baiña zure senarra inpernura joanaz? A ze maitasuna!

—Ez! Ezkondutakoan otoi egiten erakutsiko deusat.

—A, ze bide txarra! Orain maitasunez beterik zagozenez ezin, eta gero maitasuna epeldu eta errietan asitakoan bai? Bide txarra orixe.

Gaiñera, gero gizon ona egiteko, orain griña txarrak indartu? Batez be aren aragiaren joera txarretara jarri?

Bide txarretik doiaz neskatillak!

—Ez dakizu zer gertatu zan Leon'en?

—Ez! Zer zan?

—Ezer ez. Auxe bakarrik. Neska gazte bat mutil gazte batekin ezkontzeko. Benetan maiteko zirala ustę dot. Aldarera joan ziran. Ezkontzera. Eta abadeak emaztetzat gura eban itandutakoan, mutillak BAI esan bearrean, EZ esan. Eta neska gaixoaren negarrak!

—Eta orrek niri zer?

—Zuri ezerez. Baiña gure arte emakume askori bai. Gizon barriak aldaren esan eben BAI aren orde, eskatzen edo gelan EZ esaten dabela.

—BAI?

—Askotan gaiñera.

Gaztetan artu bear dabez kontuak neska gazteak. Euren barruko bakean. Ez dantza denporan.

Eleizaran



BI SISTEMA

Ba-dau komunismoak bere muiña, bere sistema. Eta ez ziran —ez orraitino—, buru txikerrak izan sistema ori asmatzean.

Izan be, doktriña bat zabaltzeko, «idea» eder eta interesanteak erakutsi bear dira. Ta «esanean» beintzat ederto jokatu eben komunistak. «Egitean» beste era batera portatzen dira.

«Bide asko dira komunismora daroienak», esan eban batzar batean Molotov jaunak. Zer esan gura eban? Jakin barik, komunismoari bidea arrotzen asi dirala beste sistemak? Edo, Komunismoaren azia edozein solotan loratzen dala?

San Prantziskoaren «sistema» yator burura pregunta onek egitean. Bai. Ez ete dauke antzik komunismo eta frantziskanismoak?

Izatez, ezberdin-ezberdiñak dira. Batak alde batera, besteak bestera, kontrakora eroango gaitu.

Baiña, itxuran, azalean, ba-dauke antz apur bat. Azalean, besterik ez.

Komunismoaren punturik inportanteena —komunismo sozialean ari naz— «propiedadean» dago. Orren kontra jokatu dabe beti amorruez. Ezdago ez ninerik, ez zurerik. Lurra, guztiona da. Aberastasunak, danonak dira. Ez daigun esku batzuetan itxi, «errian» zabaldu baiño.

Ederto, gizonak! Ames zoragarri dirudi.

Frantziskanismoak be, —aldatu bearrrak aldatuta— orixe berá erakusten dau. Prantziskotarrak ez dabe propiedaderik, ez bakarrean, ez osoan. Praille bakarrik ez dau bererik; eta Ordena osoak be ez. Beste Ordenak ba-dauke propiedadea, bakarrean ez, Ordena osoak baiño. Prantziskotarrak orixe be ez.

Baiña... ezuste gure doktriñak pro-

piedadea ukatzen dauanik. Ez orixe! Propiedadea, Leon XIII garren Aita Santuak esan eban lez, deretxo naturalaren seme da. Au neurea da, esan daíke gizon batek, eta au zurea: Jaungoikoak olan gura izan ebalako. Ta munduaren onbideak alantxe eskatzen daualako.

San Prantziskoak ez eban gura izan propiedaderik bere semeentzat: zeru-bidean estroposu barik joan eitezan. Propiedadea daukanak ardura ta billurretan bizi bear dau.

Eta orregaitik gura ebazan bere semeak «ezerbageak»... zeru-bidean. Baiña San Prantziskoak ez eban iñoiz esan propiedadea ukatu bear zanik.

Gai onetan, eta beste askotan be bai, komunismoa eta materialismoa bardiñak dira. Eta ezer kontrakorik munduan baleite, materialismoa eta San Prantziskoak erakutsia dira.

Bi sistemak sakondu ezkeru, ezberdin-ezberdiñak agertzen dira. Baiña, azalean, antzeko itxura apur bat ba-dauke. Gaurko askori gertatzen yakena: alkar ezagutzean, azalez bakarrik ezagututen dira, aurpegiz; edo ziñean, edo dantzan, edo paseo illun batean gabeko amabietan, eta... andik aste betera ezkondata daukozuz. Zer gertatzen da gero? Zera... bizi ezin, alkar artu ezin eta errieta ta ezkontza austeá. Azalez bakarrik ezagutu ziran baiña barrutik oso ezberdiñak ziran.

Eta lengo ariari jarraituz, komunistak gu prantziskotarrak euren antzekoak garea uste dabe. Ala uste eben, Españiko azken gerran komunista batzuk: Eleizgizonak iltzera ioiazan, eta frantziskanuak ikusi ebezenean... agintariak, arrituta: Zuek eriotzara? Ez orixe! Zuek be komunistak zaree...

POBREEN LAGUNA

Zenon anaia, frantziskotar fraille osos-
-osoa dozu. Poloniaño semea bera. Azkenengo
25 urteetan, oster, Japon'en bizi da.

Bere gurasoak sute batek kiskaldu zitun.
Eta Zenon umezurtzak, 29 urte eukazala,
fraille egitea ebatzi eban. Fraille sartu ez-
kero, gaur altarelara bidean dagon, Aita
Maximiliano Kolbe'n laguntzaillerik fiñena
bera izan zan. «Amabirjiñaren Zalduna» ize-
na eukan errebistatxo bat argitaratuten eban
Aita Kolbe'k. Eta anai Zenon'ek errebistatxo
au asko zabaldu eban Japon'en.

Baiña azkenengo gerra ostean garrantzi
geiagoko zeregiñak topatu ebazan gure anai-
txo zuurrak. Japon'en, millaka ta millaka
koittadu aurkitzen ziran, ez etxe, ez jantzi,
ez ogirik barik, zubi azpietan eta lo egiten
ebela.

Orduan bere indar guztiekaz, pobraeri la-
guntzen asi zan, etxerik etxe eskatuaz. Orain
ondo ezaguna da, gure anai Zenon, Tokyo
inguruetan... Sarritan agertzen da periodi-
koetan, berak pobreen alde egiten dauzan
alegiñen barria. Eta katolikoak eztiranak
be, guztiak maite dabe.

Anai Zenon'ek, trenaz edonora joan bear
ba-dau be, billeterik artu bearrik eztauko.
Trenetako morroi guztiak ezagutzen dabe,
Guztiak dakie, anaitxoa nora edo ara do-
nean pobreeri laguntzearren bakar-bakarrik
doala eta ez dautse billeterik edo antzekorik
be eskatzen. Jateko orduetan be eztau erren-
kure aundirik izango otefen bat billatzen.
Jan, geienetan beintzat, bere anai pobreekaz
jaten dau, eta lo edonun: zubi azpian be
bardin.

Japon'go Emperadorearen semea bere la-
gun aundia da eta egunero errosario bat
errezatzen dau bere alde. New York'eko
Spellman Kardenala be Zenon'en lagun-la-
guna da.

Tokyo'ko sal-eroslerik aberatsenak dago-



zan uri-alde Gintza deritxo. Komertzio one-
tan berak gure dabena artzeko eskubidea
dauko anai Zenon'ek. Jainkoagan siñistuten
eztabenak be, frantziskotar onengan siñistu
egiten dabe. Guztiak maite dabe zintzoa da-
lako, eta ba-dakie berak lortuten daben
dan-dana pobreeri daroatzela.

Sarritan esan oi dautse Zenon anaiak abe-
ratsari: Jainkoak gizon guztiak maite dauz;
baiña ezeritxo be emolen ezpadeustazue, ezta
zuekaz pozik izango.

Bere zorrotzoa betetan dabeneko, pobre
ta gairxoengana joaten da. Berak ba-daki zo-
ritzarrekoenak non dagozan. Pozik urrera-
tzen yake, zorrotzo bete-betea erakutsiz, ba-
rreka-barreka. —«Jainkoaren sariak dira ge-
ro onek, esaten dautse, eskerrak emon bear
deutsazuez Berari».

Amak legetxe, gauza guztietan laguntzen
dautse: ulia ebagi, zauriak osatu, erropak
josi... eta agirika egin be bai okerkerien
bat egiten dabenean. Baiña asarratu, Zenon
anaia ezta iñoiz be asarratuten. Ori guztiak
dakie.

Aurten berton, 170 pobre errukigarrienen-
tzako, etxe polit-politak egin dauz, eleizatxo
ta guzti.

Anai Zenon'eri eskarrak, amaikatxok ba-
taio santua artu dabe, azkeneko orduan.
Fraillitxo au, aita Frantziskok ainbat maite
eban ejenplu ederrak edonun zabaltzen di-
ñardu. Eta bere ejenplu onak, asko ta asko
daroetz, benetako Jainkoa maite izatera.

BERTSO BARRIAK

Juan Ormaetxe'k imiñiak

- I. *Bizkaiian dogu eskola eder bat
Bilbon jarrita: Euskaltzaindi!
Au ikusiaz alaituten da;
Txori toki bat dirudi!
Egun danetan beterik dago,
Ori bai dala pozgarri;
Illuntzeetan bete-beterik
Ta txori ama kantari.*
- II. *Asaba zarrak lotan dirade,
Semiak dira ixartuta;
Egal danetan Udabarriko
Txiruliruli kantaka.
Arbola eder bat Bilbon daukie
Eurak kabitzat artuta;
Zein da guraso poztuko ez dana
Semiak ola ikusita.*
- III. *Lotan egon dan gaixo bat legez
Barrua gora goraka,
Ixartueran bere amari
Pozez beterik mosuka.
Ama gaixoa biotz alaiatz
Baita semiai besarka
Ikusirikan lumaz jantzita
Asi dirala egazka.*
- IV. *Txori kabia politagorik
Ezin leiteke aurkitu,
Gure txindorrek bere kumiak
Oso oso maite ditu.
Arriskurikan ikusten badau
Egalpian sartzen ditu
Miru etsaiak bere erpakaz
Egin ezteiozan ostu.*
- V. *Negu gogorra ganian dogu
Uda gozua amaiturik,
Gure mendi ta zelaiaik laster
Edurragaz zuriturik.
Teillapetxu bat biar dabie
Otz gogorrek galdu barik
Udabarrian geratu ezkaiten
Txoritxuen kanta barik.*
- VI. *Lengo domekan Astrabuduan
Nintzan meza entzutera,
Antxe ikus nitun neska ta mutil
Neba ta arreben antzera,
Euren auzoko gazte bateri
Il agurra emotera;
Axe bai zala Euskalerriko
Antxiñako oitura!*
- VII. *Aren ostian jaiia polita
Zeruetako antzian,
Aurresku eta jantza garbiak
alboko zelai erdian.
Kanta guztiak ta erreguak
Zirean euskera ulsian,
Zeruak bere ola artzen dabe
Aingerua doanian.*
- VIII. *Agur Astraudu ta agur Alpontso,
Agur il dan gaztiari,
Biotz barruti erregua egin
Aiztu barikan oneri.
Laguntasuna aren bitartez
Goian daukagun amari
Sendotu eta indarra emon
Deion gure euskereari.*

ETXE-BIZITZA BILLA

Gomutakitzat

Geure mendien bestaldian gengozan garayan, etxe bizitza bearrian aurkitu giñan, bein.

Emen ikusi eta orra jo, erriko toki alai eta politenian idoro gendun bat, bere-bizikoa eta egoki-egokia geuretzat. Eleizatik eta erritik urrian eta, ganera, ikuspegi eder eta zabaldua.

Alde batetik KANTAURI itxasoa, urdin, garden, zabal eta ederra. Beetxuan Donibane eta Sokoa'ko kai-sarrerea; arantzago Jaizkibel mendia, Guadalupeko Amaren eleiza zuria agirian zala; eta urruti-samar MATXITXAKO'ko tontor maitia, itxasoan barrura sartuta lez, eta bere barrenean Bermeo, Sukarrieta, Gernika..... geure jayoterri kutunak irudituten yakuzala..... (Betiko galdu etegenduzan?..)

Ganera gau illunetan eta, batez bere, ego aize epela ebillenian, andixek ikusi geinkian Matxitxako'ko argiaren kiñu eta dir-dira zoragarria. (Bein baño sarriago oetik jagi goizaldian eta biotz-ikaraz eta begiak malkoz lausotuta, abestu gendun, beste neugaz bizi zan gernikar batek eta biok:

«Urrundik ikusten dot
ikusten mendia,
Beraren gibelian
daukat nik erria.....»

Beste aldetik, barriz, erri txiki, zuri eta trukun askoren artian: Getari, Bidart, Ilbarritz, Biarritz... eta, asago, Aya'ko atzak eta Naparroako mendi zorrotzak...

Etxe bizitzearen jaubia, edo obeto esateko ugazabandrea, andratxu alargun bat zan, urtietan aurreratxu joyana, zimeltxua, matrall-gorria, begi-begikoa eta Madame SASKO eritxona.

Baña, aor ba, eskatu euskun etxe-saria, errentia, larregitxua iruditu jakun: irureun franku illean, eta guk, orduan, urri geunkazan diruok...

Olan adierazoten emon geuntsan andratxuari, eta guk geyegi zala eta berak eskatzen ebana baño, bere etxe arek geyago bear ebala... asarratu barik (jez orixel) bigun-bigun, emeki-emeki, bakotzak bere opillari su-emon nairik, luzaroan ekin geuntsan.

Azkenez, amamatxu maratz, garbi eta bizkor arek autua bein amaitu nayez-edo, zuzendu zan geugaz buru-antzo ebillen «Garbi-nai» euskal-idazleaganatz eta leun-leun, gozo-gozo eta bape berotu barik, esan eutsan:

—«Ara, jauna: Zeurea txanpona eta neurea etxea, eta len-baizen adiskide»

Eta ¡kitu! Etzegoan beste zer-esanik. Esateko guztia, itz bitan, esanda egoan.....

¡Arrezkero, zenbat aldiz eztot andratxu axe gogoan eukil!

Bizi, ete da?...

BELU

(Gernika)

